98/2024 EBAZPENA, INFORMAZIO PUBLIKOAREN SARBIDERAKO EUSKAL BATZORDEARENA

Espedientea: 2024/000240

Gaia: _____AUZO ELKARTEAk jarritako erreklamazioa, Donostiako Udalari egindako informazioaren sarbiderako eskaera ustez ezetsi egin zaiolako.

AURREKARIAK

1.- Espedientean egiaztatuta dagoenaren arabera, 2024ko maiatzaren 4an, _____AUZO ELKARTEAk informazio publikoa eskuratzeko eskabidea aurkeztu zuen Donostiako Udalean, eta ekainaren 4an berriro aurkeztu zuen. Bertan, honako hau eskatzen zen:

> *«2024-MZE-00029 zehapen-espedientearen kopia bat, _____ ostalaritza-establezimenduari irekitakoa (_____kalea __)».*

2.- 2024ko uztailaren 5ean, _____AUZO ELKARTEAk aurkeztutako erreklamazioa sartu zen Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzorde honetan, informazio publikoa eskuratzeko egindako eskabidea ustez ezetsi egin ziotelako.

Erreklamazioan, honako hau adierazten da:

> *«Lehen idazkitik 2 hilabete igaro ondoren, Udalak oraindik ez dio erantzun egindako eskaerari, eta ez du eskatutako espedientea bidali.*
> *_____bizi garenon bizi-kalitatea hobetzeko interesa dugunez, Administrazioak legezkotasuna urratzen duten jokabideen aurrean emandako erantzunen emaitza ezagutu nahi dugu. Irekitako espedienteetarako sarbidea badugu soilik egiaztatu ahal izango dugu auzotarren interesen aurkako jokabideen aurrean administrazio-jardunak duen efikazia. Gure ustez, Administrazioak zehatzeko ahalmena duenez arau juridiko bat urratu duenari administrazio-zigor edo -zehapen bat ezartzeko, herritarrek ere aukera izan behar dute ahal hori kontrolatzeko eta kontrolatu egin behar dute, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legeak (GIBGOL) eskaintzen dituen mekanismoen bidez.*
> *Laburbilduz, _____Auzo Elkarteak eskatzen du aitor diezaioten Donostiako Udalak irekitako espedienteetan jasota dagoen informazioa jasotzeko eskubidea».*

3.- 2024ko uztailaren 5ean, Batzordeak erreklamazio hori bidali zion elektronikoki Donostiako Udalari, gaiari buruzko txostena egin zezan eta hura ebazteko garrantzitsutzat jotzen ziren agiriak aurkez zitzan hamar egun balioduneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita. Jakinarazpen hori egun horretan bertan onartu zen.

4.- Emandako epea igarota, ebazpen hau eman den egunean, Donostiako Udalak ez du inolako alegaziorik egin. Beti hartu behar dira kontuan informaziorako sarbidea mugatzeko arriskua dakarten aldagaiak, edo informazioa emateko existitzen diren oztopoak, informazioa prestatzen edo argitaratzen ari direlako, edo berriz prestatu behar delako, datu pertsonalak babestu behar direlako eta abar; beraz, adierazi behar dugu komenigarria izango litzatekeela Udalaren irizpidea jakitea, hemen hizpide dugun kasuaz ebazteko judizio-elementu garrantzitsuak emango lituzkeelako. Dena den, batzorde honi lagundu ez izana deitoragarria izan arren, udal horrek alegaziorik ez egiteak ez du eragozten aurkeztutako erreklamazioa ebaztea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren 1. artikuluan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoan Informazio Publikoaren Sarbiderako Batzordearen erantzukizuna izango da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen (aurrerantzean, GIBGOL) laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako zereginak betetzea, EAEko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 65. artikuluan ezarritako araudiarekin lotuta.

2.- Era berean, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen duenaren arabera, batzordeari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkide edo toki-erakundeetako administrazio publikoen eta EAEko sektore publikoko gainerako erakundeen berariazko nahiz ustezko ukatzeei buruz aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, GIBGOLren 24. artikuluan araututako informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzearen arloan xedatutako aurkaratze-araubidea aplikatuz.

3.- Bestalde, GIBGOLren 13. artikuluan ezartzen denez, informazio publikotzat hartzen dira edozein formatu edo euskarritan dauden edukiak edo dokumentuak, baldin eta I. tituluaren aplikazio-eremuan aipatutako subjekturen baten esku badaude eta haien funtzioen jardunean egin edo eskuratu badira. Dagokigun kasuan, eskatzen den dokumentazioa existituko balitz, Donostiako Udalaren esku egongo litzateke, bera baita eskuduna gai honi dagokionez.

Baldintza horiek betetzen direnean, organo eskudunak eskatutako informazioa eskuratzea ahalbidetu behar du, non eta ez duen argi eta garbi azaltzen badagoela eskaera ez onartzeko kausaren bat edo aplikatu beharreko lege-mugaren bat.

4.- Erreklamazio honen ondorioetarako, informazio-eskaerak 2024ko maiatzaren 4an eta ekainaren 4an aurkeztu zitzaizkion Donostiako Udalari. GIBGOLren 20.1 artikuluan xedatzen denaren arabera, udal horrek hilabeteko epea zuen ebazpena eman eta jakinarazteko, eta epe hori luzatu egingo litzateke hirugarren ukituei entzutea bidezkoa izanez gero.

5.- Erreklamazioa, berriz, 2024ko uztailaren 5ean aurkeztu da batzorde honetan. GIBGOLren 24.2 artikuluak dioenez, erreklamazioa hilabeteko epean jarriko da, aurkaratutako egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gainera, 24.3 artikuluak dioenez, erreklamazioa izapidetzean, kontuan hartu behar da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak errekurtsoei buruz dioena (gaur egun, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena). Horren harira, Legearen 122.1 artikuluak xedatzen duenez, aurkaratutako administrazio-egintza espresua ez bada, eskatzaileak eta izan litezkeen beste interesdun batzuek gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete, noiznahi, araudi espezifikoaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera. Ondorioz, eta Udalak ez duenez adierazi eskabide horiei erantzun diela, erreklamazioa epe barruan jarri dela ulertu behar da.

6.- Lehenik eta behin, batzorde honek adierazi behar du, Udalak ez dienez erantzun informazio publikoa eskuratzeko egin diren bi eskaerei, administrazio publikoek, herritarrekin duten harremanetan, administrazio-prozeduraren bidez bideratu behar dituztela beren eginkizunak, administratuen eskubideen berme gisa edo, bestela, interes publikoaren beraren berme gisa. Administrazio-izapideak egotearen eta herritarrei erantzun eraginkorra ematearen bermea Espainiako Konstituzioan bertan dago jasota. Horrela, bada, prozedurak arautzen dituzten arauak zehatz-mehatz eta espedientea osatzen duten izapide guztiak ahalik eta gehien zainduz betetzeko obligazio administratiboa, administrazio eraginkor baten 103. artikuluaren agindu konstituzionaletik dator zuzenean; Administrazioa eraginkorra izango bada, objektibotasunez zerbitzatu behar dituelako interes orokorrak, eta legeari eta zuzenbideari erabat men eginez jardunez, hau da, jardun publikoa legeak ezarritako administrazio-prozeduraren mende jarriz taxututa. Gogorarazi behar da Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikuluko eraginkortasun-printzipioaren arabera administrazio publikoek modu arrazoituan bete behar dituztela gizarteak eskubide osoz dituen

aurreikuspenak, horien artean, partikularrek aurkeztutako eskaerei eta erreklamazioei azkar erantzuteko beharra; izan ere, administratuak administrazio-ebazpenen oinarriak zehatz-mehatz ezagutzea ezinbestekoa da bere legezko eskubideak eta interesak defendatzeko.

Ebazpenik eman ez izanak defentsa-gabezia dakarkio eskatzaileari, eta hori ez dator bat eskubide baten mailarekin, hau da, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearekin; izan ere, eskubide horrek onarpen zabala du ordenamendu juridikoan, eta, ondorioz, haren eraginkortasunaren murriztapenek mugen interpretazio zorrotza izan behar dute abiapuntu, eta berariaz eta proportzioz justifikatu behar da haren aplikazioa. Auzitegi Gorenak ere horrela egin behar dela agindu du behin eta berriz; ikusi, bestela, zer dioen 2020ko ekainaren 11n eman zuen epaian (ECLI:ES:TS:2020:1558):

«*Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen zioen azalpenean ezartzen denez, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, zeinaren titular pertsona guztiak baitira, soilik mugatuko da informazioaren izaeragatik beragatik edo babestutako beste interes batzuekin gatazkan sartzeagatik beharrezkoa denean; eta, aurreikusitako mugak aplikatuko dira kaltearen (mugarekin babesten den interesaren) eta hedapenaren interes publikoaren (kasu zehatzean informazioa zabaltzeko interes publikoa ez nagusitzea) test baten arabera. Gainera, modu proportzionatuan eta xedearen eta helburuaren arabera mugatuko da.*

Auzitegi honek aukera izan du —Auzitegi Gorenaren 2017ko urriaren 16ko 1547/2017 Epaia (75/2017 Erreklamazioa) eta Auzitegi Gorenaren 344/2020 Epaia (8193/2018 Erreklamazioa)— informazio publikoa eskuratzearen aurkako mugei buruz honako hau adierazteko: "(…) Informazioa eskuratzeko eskubidea aitortzeko eta legez arautzeko formulazio zabal horren zioz, zehatz-mehatz (eta batzuetan modu mugatzailean) interpretatu behar dira bai eskubide horren gaineko mugak, 19/2013 Legearen 14.1 artikuluan zehazten direnak, bai 18.1 artikuluan zerrendatuta agertzen diren informazio-eskaerak ez onartzeko kausak (…), eta ezingo da onartu informazioa eskuratzeko eskubidea modu ez justifikatuan eta neurrigabean kaltetzen duen mugarik".

Beraz, justifikatuta eta proportzionatuta dauden mugak baino ez dira onargarriak, hala xedatzen baitu 19/2013 Legearen 14.2 artikuluak: "(…)2. Mugak xedearen eta babes-helburuaren araberakoak izango dira, eta kontuan hartuko da kasu jakin bakoitzaren egoera, bereziki, informazioa eskuratzea justifikatzen duen interes publiko edo pribatu handiagorik ote dagoen". Horrenbestez, informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izatea ez da administrazioaren ahalmen diskrezional bat, eta legez ezarritako kasuetako bat gertatzen denean bakarrik da posible, hots, eskatzaileak behar bezala

egiaztatzen duenean eta xedearen eta helburuaren arabera proportzionatua eta mugatua denean" (3. ZO)».

7.- GIBGOLren 12 artikuluak xedatzen du pertsona guztiek dutela informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, eta 17.3 artikuluan jasota dago eskatzaileak ez dituela zertan azaldu informazioa eskuratzeko bere eskaeraren arrazoiak, baina, hala ere, informazioa eskatzeko arrazoiak eman ahalko ditu, eta aintzat hartu ahalko dira ebazpena idaztean. Arrazoirik ez ematea, ordea, ez da eskaera ukatzeko arrazoia izango. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ez da arrazoitu behar; beraz, eskatzaileak ez dauka zertan izan interesduna eta ez du frogatu behar eskatutako informazioan interes legitimoa edo zuzena daukala. Nornahik eskuratu dezake bere interesekotzat jotzen duen informazio publikoa; muga bakarrak Legean ezarritakoak dira. Azpimarratu behar da eskaera auzo-elkarte batek egin duela eta, bere borondatez eta irabazi-asmorik gabe, bere komunitatearen bizi-baldintzak hobetzen laguntzen duela; izan ere, lurralde-eremu bakar batean esparru guztiak garatzea du helburu: hirigintza, hezkuntza, mugikortasuna, osasuna, ingurumena, gizarte-askatasunak…

8.- Batzorde honek ez daki zein den egindako arau-haustearen eduki materiala, eta, ondorioz, ez eta zehapenarena ere, baldin eta, egiaztapenen eta frogatutako gertaeren arabera, zehapena jarri bada.

Hori garrantzitsua da; izan ere, ingurumenarekin, hirigintzarekin, osasun publikoarekin, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideekin eta abarrekin lotutako gaietan, esaterako, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen sistema indartuak daude.

9.- Zaratagatiko salaketekin lotutako beste ebazpen batzuen esparruan, dagoeneko badaude araudiak, hala nola Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea, zeinaren helburua baita Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko arau-esparrua ezartzea, eta pertsona fisiko eta juridikoen eskubideak eta betebeharrak zehaztea, honako helburu hauek lortzeko, besteak beste:

> *«e) Ingurumenaren babesean alderdi publikoaren eta pribatuaren arteko erantzunkidetasuna sustatzea.*
>
> *g) Lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren jarduketak zaintzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea.*
>
> *h) Ingurumen-arloko informaziorako sarbidea zein parte-hartze publikoa eta justiziarako sarbidea bermatzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea».*

Hori dela eta, bere printzipioen artean, honako hau jasotzen da 3. artikuluan: *b) Informaziorako sarbidea, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea politika publikoen diseinuan eta egikaritzean*; eta, eskubideen artean, 5. artikuluan, ingurumen-arloko informazioa eskuratzeko eskubideaz gain, hau jasotzen da: d) *Akzio publikoa egikaritzeko eskubidea, EAEko administrazio publikoei eskatzeko ingurumen-legediak xedatutako betebeharrak gauza ditzatela.*

Era berean, eta ingurumen-arloko ikuskapenei dagokienez, honako hau xedatzen da 94.1 artikuluan:

> *«1. Ikuskatze-bisita egiten den bitartean, ekintzak deskribatzen dituen akta egingo da; bertan jasoko da jarduera zein baldintzatan garatzen den, hala badagokio, zein irregulartasun sumatu diren eta haien ardura duen pertsonak egin dituen adierazpenak Era berean, ikuskatze-bisita egiten den bitartean laginak hartzen badira edo neurketak egiten badira, ziurtatu beharko da xede horretarako onartutako jarraibide teknikoek zehaztutakoaren arabera egin direla jarduera horiek.*
>
> *2. Ikuskatze-lanak egiten dituzten langileek beren ahalmenak egikaritzean egiten dituzten aktek jasotako ekintzek froga-balioa izango dute, interesa duten pertsonek beren eskubideak eta interesak babesteko aurkez ditzaketen frogen kalterik gabe.*
>
> *3. Ingurumen-baimen bateratuaren eta ingurumen-baimen bakarraren erregimenen mende dauden jardueretara egiten den ikuskatze-bisita bakoitzaren ondoren txosten bat egingo da eta hartan jasoko dira jarduera aurrera eramateko gaikuntza-tituluen baldintzak eta araudian jasotako baldintzak betetzeari dagokionean atera diren ondorioak, bai eta geroagoko beste edozein esku-hartzeri dagokionean ere. Jardunbide hori hautazkoa izango da lege honetan aurreikusitako ingurumen-alorreko beste esku-hartze erregimen batzuen mendeko jardueretara egiten diren ikuskapenetan.*
>
> *4. Bi hilabeteko epean ikuskatze-bisitaren txostenaren berri emango zaio jardueraren edo instalazioen titularrari, bisita hori egin den egunetik aurrera kontatuta.*
>
> *5. Dagokion arloko araudiak hala eskatzen duenean eta, betiere, jendeak duen ingurumen-informazioa eskuratzeari buruzko araudian xedaturikoaren arabera, administrazio publikoek, bisita egin den egunetik hasi eta lau hilabeteko epean, herritarren eskura jarriko dituzte, baliabide elektronikoen bidez, egindako ikuskapenei dagozkien txostenak».*

Horrek ingurumen-arloko jarduketa publiko osoa hartzen du barne, arlo bakoitzak dituen berezitasunekin, eta maila instituzional bakoitzak dituen eskumenen esparruan (autonomikoa, forala, tokikoa); horrez gain, ingurumenari nahitaez eman beharreko babesarekin lotutako informazioaren izaera publikoa azpimarratzen da.

10.- Ingurumenaren arloari dagokionez, informazioa eskuratzeko eskubide indartuarekin, ikuskaritza-lanari dagokiona barne, adierazi behar da, gainera, zaratagatiko salaketak badira, balizko emisio akustikoak sartuta daudela jarduera publikoek zein pribatuek ingurumenean esku hartzeko bete behar dituzten araubideetan, jarduera horiek ingurumenean eta pertsonen osasunean duten eragina handiagoa edo txikiagoa den oinarri hartuta.

11.- Arau-haustea udal-entitateek Euskal Autonomia Erkidegoan egindako ikuskapen higieniko-sanitarioekin lotuta badago, eta agerian uzten badute establezimendu jakin batek ez dituela betetzen arauz ezarritako baldintza higieniko eta sanitarioak, egia da titularren interes ekonomiko eta komertzialei eragin diezaiekeela, hautemandako ez-betetzeak ezagutzearen ondorioz bezeroak galdu daitezkeelako.

Dena den, horrek ez dakar automatikoki informazio hori eskuratzeko kaltearen muga aplikatzea. Muga horren aplikazioak, nolanahi ere, proportzionatua izan behar du eta babesaren xede eta helburuaren araberakoa izan behar du.

Halaber, modu murriztaile eta justifikatuan interpretatu behar da, kasu zehatzaren baldintzei erreparatuz, bereziki, aztertuz ea informazioa zabaltzea justifikatzen duen interes publiko goren bat dagoen aldi berean, GIBGOLren 14.2 artikuluan eskatzen den moduan.

Eztabaidagarria litzateke (beste berme-organo batzuek adierazi duten moduan) ordenamendu juridikoak ezarritako manuak ez betetzean oinarritzen diren interes ekonomiko nahiz komertzialek babesik merezi ote duten. Babesten diren interes ekonomiko eta komertzialek legitimoak izan behar dute, eta legitimitate hori indargabetuta geratzen da Administrazio Sanitarioak egindako ikuskaritzetan hautemandako araudi higieniko-sanitarioaren ez-betetzeetatik datozenean. Kasu horretan, informazio publikoa eskuratzeari dagokionez, berdin dio ikuskapenetik eta hor egiaztatzen denetik ondorioztatu daitekeen kalte ekonomiko edo komertziala.

Ezin da alde batera utzi ikuskapen higieniko-sanitarioen emaitzak zabaltzeak indarrean dagoen araudia betetzen ez duten establezimendu jakin batzuen interes ekonomiko eta komertzialei kalte egin diezaiekeela, baina kalte hori eragindako establezimenduen jarrera axolagabearen ondorio da, eskatutako informazioa zabaltzearen ondorio baino.

Eskatutako informazioaren balizko hedapena, hala badagokio, gardentasunaren interes publikorako eta informazio publikoa eskuratzeko eskubiderako baliagarri izateaz gain, kontrol ofizialen gardentasunaren printzipio orokorra aplikatuta, hau da, elikagaien eta pentsuen gaineko legeria eta animalien osasun eta ongizateari, landareen osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko arauak aplikatzen direla bermatzeko egiten diren kontrol eta bestelako jarduera ofizialei buruz 2017/625 (EE) Erregelamenduaren 11. artikuluak ezartzen duena aplikatuta. Halaber, osasun

publikoaren eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen aldekoa da, osasun publikoaren ikuspegitik egokienak diren ostalaritza-zerbitzuetako kontsumo aukeren artean aukeratzeko elementu objektiboak eskainiko lituzkeelako. Horrekin, ardura profesional handiagoa sustatzen da taberna, jantoki eta jatetxeetan, araudi hau betetzeko orduan. Gainera, eskatutako informazioa zabaltzeak Administrazioaren ikuskaritza jardueraren kontrola errazten lagunduko luke eta hori, zalantzarik gabe, interes publikoko elementua da.

Hortaz, esan daiteke, arau-hauste higieniko-sanitario bat izango balitz, kasu zehatz honetan, interes publiko gorenak daudela (osasun publikoa eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak, Administrazioaren ikuskaritza jardueraren kontrolaz gainera), informazioa eskuratzea justifikatzeko (eskuratze hori eskatzen da, halaber, Europar Batasuneko zuzenbideak ezartzen dituen irizpide juridiko orokorrei erantzuteko), muga aplikatzearen gainetik. Ondorioz, eskatutako informazioa eskuratzearen aldeko ebazpena ematen da.

12.- Egia da zehapen-espedientean datu pertsonal hauek egon daitezkeela: salatzaileenak, egitateak edo ikuskapenak egiaztatzeko prozesuetan lortutako probetan esku hartzen dutenenak, eta ikuskatzaileenak —identifikazioa eta sinadura—. Datu horiek guztiak anonimizatu egin daitezke, babestuak izateko, eta ez dute informazio gehiagorik ematen entitate erreklamatzailearen intereserako. Horregatik, ez da beharrezkoa GIBGOLren 15.3 artikuluan ezarritako haztapena egitea; edozein kasutan, horrelakorik egonez gero, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aipatzen den bereziki babestu beharreko datuak saihestuko dira.

EAEn araututa dagoen bezala, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2023 Legearen 126. artikuluan, ikuskapen-aktei buruzkoan, honako hauek jaso behar dira: ikuskapena jasotzen duen enpresaburuaren, establezimenduaren edo jardueraren identifikazioa; ikuskapenaren ardura hartzen duen pertsonaren edo pertsonen identifikazioa, zein kalitatetan jarduten duten adierazita (118.2 artikuluan adierazitako kasuetan izan ezik); ikuskatzailearen identifikazioa eta sinadura; jardunaren tokia, data eta ordua; ikuskapen-jardunaren xedea; egiaztatutako gertaerak, egintzak eta negozioak; eta, halakorik badago, ikuskapenaren ardura duen pertsonaren adierazpenak eta sinadura.

Horren arabera, beraz, ulertu beharko da eskatutako informazioa eskuratzeko eskubideak ezin izango dituela datu pertsonalak eman. Hori esanda, bi aukera daude: batetik, dokumentuen kopiak modu anonimoan ematea, GIBGOLren 15.4 artikuluko terminoetan; edo, hala badagokio, datu pertsonal gehiago dituzten dokumentuen funtsezko edukiari buruzko informazioa ematea, betiere egindako administrazio-egintzen interpretazioari kalterik egin gabe, salaketa zehatzen ondoren egindako kudeaketagatik kontuak emateko helburuarekin.

13.- Azkenik, eta antzeko espedienteetan batzuetan argudiatzen denez egindako ikuskapen-jarduketak egin diren moduari buruzko informazioa ematea kaltegarria izan daitekeela administrazioko arau-hausteak prebenitzeari eta kontrolatzeari dagokionez, Batzorde honek zehaztu behar du ez dela kasua; izan ere, dirudienez, espedientea dagoeneko zehapen-izapidean dago, eta, hortaz, arau-hauste diren egitateak ikuskatzeko eta egiaztatzeko lanak amaituta egon behar dute.

Aurreko guztia kontuan izanik, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak, aho batez, hau

EBAZTEN DU

Lehenengoa.- Baiestea _____AUZO ELKARTEAk aurkeztutako erreklamazioa, Donostiako Udalari aurkeztutako informazio publikoaren eskaeraren ustez ezetsi egin zaiolako jarritakoa.

Bigarrena.- Donostiako Udala premiatzea erreklamatzaileari behin eta berriz eskatutako informazioa eman diezaion, 10 eguneko epean, ebazpen honen 12. oinarri juridikoan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.- Ebazpen hau entitate erreklamatzaileari eta Donostiako Udalari jakinaraztea.

Laugarrena.- Ebazpena Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen web-orrian argitaratzea, entitate erreklamatzaileari jakinarazi eta datu pertsonalak testutik kendu ostean.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa soilik jar daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10.1. m) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz,

Batzordekidea Batzordeburua

Ana Isabel García Maté

Miren Martiarena Barkaiztegi

Batzordekidea

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino